

GIZON OSPETSU BAT

(EGIA GUDALBURUA)

Egia, Letona, Izartza ta Ormatza'tar Frantzisko Ramon jauna, 1750'eko orrillaren 5'ean jaio zan Bilbo'ko eta Jon deunen eleizan bateatu eben.

Egia'tar Frantzisko ta Letona'tar Antonia izan ziran bere gurasoak.

Amazazpi urte bete ebazanerako, gogozko atzerritar eta oiñezko gudarien buru izan zan eta Arjelia'ko Panazala menperatzeko guda-ekiñaldian jokatu eban.

1781 'ean Zeuta'n egoan gudari-taldearen buru. Laskun, Orrio ta Olabe'ko guda-ekiñai laguntza emon eutsen eta eurak, 45 urte eukazala, 1795 'ko irailtaren 4'an Mariskal maillara goratu eben. Aldi onetan asi zan bere nortasuna agertzen.

1797'an Jaka'ko politikari ta gudari-agintari izan zan eta iru urte geroago, Aragon-erreinuko komandante.

Geroago Gaztela'n Barriko Gudal-Ordezkarari izendatu eben eta 1814'an gudarako ministro. Urrengo urtean batzar Orokorrak Nagusi izendatzea erabagi eban: «Guda-Ministru dan Egia ta Le-

tona'tar Frantzisko Ramon, Jaunerriaren aintza agirian ipinteko, Seme Ospetsuen artean ezarri eben eta Erriari egindako laguntzen ezaugarri lez, Aldundiari baimena emon eutsoen aren orotarria Bilbao urian ipiñi dagian. Bilbo'ko Jaunerri-Etxean, gela nagusian aren argazkia ezarri eben, barru-asmapenen aren adierazpen egokia dan eta bere goientzaren zabaltasun ta gizabidezko gomutagarria izan daiten».

1822'an Baiona'n, Batzar Orokorren Lendakari egin eben, FEDEAREN GUDARITZA Errege Katolikuari kendu eta aginpide osoa emotea antolatze-ko.

Bere elburua Cadiz'ko Araudiaren aldakuntza zan. Ordura arte egoan araudiak ez eukalako indarrik España'ko zalaparta ta matxinadak itoteko.

Egia'ren ekiñaldiak San Luis'en eun mille seme esaten jaken gudaroste alkartua sortu eban.

VII Fernando'k Egia gudalburuaren laguntza eta otseintzak ondo saritu ebazan eta «Erregearen eskubidezko Konde» egin eban 1820'ko epaillaren 7'an.

1823'an, orrillaren lenengo egunean, Bilbo'ko Udaletxean urrengo erabagi au arru zan: «Bilbo uriak atsegin artzen dau eta opzarren zorionak emoten dautsoz biotzeko maitasunaz, seme txakoarria dan Egia'tar Frantzisko'ri bere kemen aundia-gaitik eta aberria ta erregetza zaintzen egin dituan lanakaitik».

Eta egun batzuk geroago, 1823'ko orrillaren 26'an, Antigua'ko Andra Maria'ren eleizan zin-egilleak bere seme argitsu dan Egia ta Letona'tar Frantzisko jaunari agiriz maitasuna agertze-ko, gure leiñargi entzutetsuakaz batera arduratu dalako auxe erabagi eban: «Zure goientzak, sendiaren armari edo ikurdian ezarri leikez gure Jaunerri guztiz zintzo ta guztiz lealaren» itzak eta bere ondorengoai, autorpen au agerbiderik aundiena lez, Bizkai'tarren pozerako izan dagien, foruen iraupenerako eta babeserako.

Ogei ta amazazpi urtekoa zala, 1887'an, Madrid'en il zan, argitsu ta entzute aundiko bizkaitar ospetsu au.